

«Hirugarren olatu bat sortu behar dugu»

Oldarraldia, larrialdia, indarraldia... euskararen-tzat ere ez da edonola-ko aldia. Testuinguru horretan, Euskal Herrian Euskarazeko ki-deek hainbat ekintza egin di-tuzte aurten: Harrotze Astea, Baionako Justizia Jauregian ekimen desobediente, mani-festazioa Durangon... Eragilearen eta egoeraren berri jakite-ko asmoz, Intza Gurrutxaga (Getaria, 1996) eta Sugoi Etxarri (Larraun, 1997) kideekin egon gara.

Euskaingintzaren Kontseiluak “hizkuntza larrialdia” deklaratu berri du. Zuek nola bizi duzue hori? Zeintzuk dira horren arrazoiak?

[Intza Gurrutxaga]: 50eko hamarkadan euskara hil ala biziko egoeran zegoen eta biziberritze olatu bat sortu zen, handik indarberritze prozesu batean sartzeko. Gero, 80ko hamarkadan, beste olatu bat egon zen. Eta orain ikusten genuen azken bi hamarkade-tan-edo bazegoela geldialdi bat. Beraz, hirugarren olatu bat sortu behar dugu, berriro ere indarraldi batean sartzeko eta geldotze egoera horretatik ateratzeko.

[Sugoi Etxarri]: Testuinguru horretan, ulertzen dugu aurreko olatuetatik irakaspenak ateratu behar direla, eta ikusi behar dugula zer muga eduki ditugun. Eta gure ustez, muga horiek lotuta daude estatus falta-rekin. Lurraldearen eremu zabal batean (Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaiko zatirik handiengan, zehazki) ofizial ez izateak gabezia handiak ekartzen ditu. Koofizialtasun desorekatu batek ere bai, espainolarekin batera ofiziala

INTZA GURRUTXAGA LOIDI ETA SUGOI ETXARRI ZABALETA

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herrian Euskarazek 45 urte bete ditu aurten. Pandemiaren aurretik eta bitartean barne prozesua egin zuten eta taldea gaztetu eta biziberritu egin dute. Etxarri eta Gurrutxaga, beste askorekin batera, horren isla dira.

Mikel URDANGARIN IRASTORZA

den hizkuntzak ez baititu nahikoa tresna eta baliabide biziberritze prozesu bat azken muturreraino eramateko.

Muga horiek ikusten ari gara oldarraldi judizialarekin ere. Beraz, guk uste dugu hurrengo olatuari begira Euskararen Errepublika jarri behar dugula iparrear, hori izango delako euskarak behar duen estatua bermatuko duen egituraketa instituzionala.

[I.G.]: Horri lotuta, aipatzekoa da askotan erabileran jarri izan dela arazoaren fokua. Eta justu Iñaki Iurrebasok egindako tesian buelta ematen zion instituzioetatik zabaldu den diskurtso horri. Berak dio gaitasuna dela gure ahulgune nagusia eta horrek dakarrela erabileraren beherakada hori. Erabilerari dagokionez, aipatzen du ia gure maximoetan gabiltzala. Gure gaur egungo sarea kontuan hartuta, gehienez ere %18 ahal-ko gure erabili, eta erabilera aitortua %15koa da. Eta eroso erabiltzen dutenen kopurua %8koa. da Beraz, badago hor motibazio bat, eta ez dugu norbanakoarengan jarri behar karga hori.

Euskal Herrian Euskarazetik beste larrialdi batzuekin lotzeko saiakera egiten ari zarete.

[S.E.]: Ulertu behar dugu globalizazio prozesu batean sartuta gaudela. Kapitalismoaren garapenak eraman gaitu horretara. Estatuen inposaketaz harago, badago merkatu oso bat euskararen balioa gutxitzen duena eta hizkuntza hegemonikoena handitzen duena. Ondorioz, pantailetatik iristen zaigun guztia hizkuntza hegemonikoetan dago eta olatu oso bat dator uniformizatzer. Beraz, sistemak berak eragiten du hizkuntza larrialdia, baita larrialdi klimatikoa, etxebizi-

tzarena...ere, eta krisi horien eskutik, joera erreakzionarioak datoz. Hau da, sistema kapitalistak tokian tokian eta arloan arloan forma ezberdinak hartzen ditu, baina azkenean denak jatorri bera du.

[I.G.]: Hortik dator eskubide sozial askotan atzerapausoak eman nahia. Ikusten dugu hizkuntzari dagokionez ere hortik datorrela oldarraldi judizial, politiko, mediatiko hori guztia.

Hor badago oldarraldi ideologiko bat ere, ezta? Euskara pribilegioekin lotzen duena, eta abar.

[I.G.]: Bai, nolabait diskurtsoari buelta ematen diotenak: zapaldu izatetik zapaltzaile izatera pasatzen gara, eta orain elitea edo pribilegiadunak gara. Hori azkenean tranpa egitea da. Zentzu askotan, instituzioetan lortu ditugu aurrerapauso batzuk, baina horiek denak behar ditugu eta gehiago ere bai.

[S.E.]: Bai, nik uste dut mikromundu batzuk sortzen direla. Adibidez, eskolan ikasleek askotan ulertzen dute euskara dela araua eta derrigorrezko hizkuntza, eta espainola edo frantsesa dela askatasuna. Hori da mikromundu hori lortu dugulako. Hau da, borrokaren bidez lortu dugu espazio batzuk hartzea eta instituzionalizazio maila bat, oraindik ere hegemonikoa izatetik oso urrun dagoena, baina lortu dugu maila jakin bat. Eta orduan, maila horretan egindako lorpenak osotasuna balira bezala hartzen dira. Uste dut horri aurre egin behar diogula, eta azaldu behar dugula nola mundutxo horiek, non euskara hegemonikoa den, borrokaz lortutako espazioak diren eta ez diren betiko. Ho-

rreren alde borrokatzen segitu behar dugula, defendatu eta indartu egin behar ditugula. Eta azaldu behar dugu benetako zapalkuntza horren gainetik dagoela, eta justu alderantzizkoa dela.

Testuinguru horretan, aipatzen duzue auzia despolitizatzeako saiakerak ere egon badaudela.

[I.G.]: Bai, lehen aipatu dugun bezala, guk Euskararen Errepublikak dugu ipar, uste dugulako Euskal Herria berreuskalduntzeko independentzia behar dugula. Zentzu horretan, marko horretan politizatu behar dugu: bi estatu zapaltzaile dauzkagu, horien barruan ez dugu lortuko Euskal Herrian euskaraz bizitzetik, eta hortaz, politizatu egin behar da. Izan ere, finean, zu ez bazara kontziente euskaldun bezala jasotzen duzun zapalkuntza horretaz, zuk gero ez duzu egingo euskaraz bizitzeko hautu politiko bat.

[S.E.]: Bai, aurreko ikasturtean “Harrotze Astea” bultzatu genuen, eta ildo beretik zihoan. Euskaingintza oso enfokaturik dago konbentzitzera eta seduzitzera, eta hori beharrezkoa da, baina guk uste dugu komunitate hori zabaltzeko behar dela gehiago beste borroka batzuekin loturak bilatzetik, espazio euskaldunak sortzetik eta borrokatzetik bertatik, denbora guztian gu bigarren maila batean jarri eta menpekotasun hori berrindartzetik baino. Izan ere, uste dugu, askotan, besteak seduzitzeko saiakera horretan, gure beharrak eta eskubideak bigarren plano batean gelditzen direla, eta zapalkuntza hori normalizatu eta kamuflatu egiten dela. Gure ustez, sakonean dagoen auzi politikoa ikusezin



Gorka RUBIO | FOKU

bihurtzen badugu ez diogu irtenbiderik bilatuko.

Irtenbideei dagokienez, anestesiaz baina gehiago, sendabideak behar direla aldarrikatzen duzue. Zeintzuk dira?

[S.E.]: Hasteko, nik uste dut lehentasuna eman behar diogula euskaingintza osoak diagnostiko partekatu bat egiteko beharrari. Euskararen aldeko egitura dezente sortu dira, eta lehentasuna izan behar du egoeraren diagnostiko on bat egin eta helburu eta ibilbide orri komun batzuk partekatzeak. Eta gero, gure arteko lana ongi antolatzeak.

[I.G.]: Guk uste dugu ezinbestekoa dela pedagogia euskaltzale eta independentista egitea, indarraldi horretan ahalik eta sare handiena eta komunitate indartsuena osatzeko. Gero, instituzioei dagokienez, euskaingintza aspalditik esaten ari zaie alderdi euskaltzaleei jar ditzatela euskara eta hizkuntza politika euskaltzaleak erdigunean. Larrialdi egoera

batean gaudela esaten ari baina, eta horrek behar ditu irtenbideak, baina euskarri gisa politika sendo batzuk hartuta. [S.E.]: Horrekin lotuta, uste dut euskaingintzak ere hausnartu behar duela instituzioekin daukan eragiteko gaitasunaz. Esate baterako, iazko Hezkuntza Legearen ondorioetatik irakaspenak atera behar ditugu eta birformulatu. Izan ere, adostasun sozialak lortu ahal izango ditugu berriz ere mahai baten bueltan, baina gero maila politikoan ez badira onartzen eta ez bada deus gertatzen... ez badu horrek alderdi euskaltzaleengan eta oro har, mahai instituzionalean eraginik, zerbait ez gara ondo egiten ari. Eta arriskua dago berriz errepikatzeak.

Euskal Herrian Euskarazek 45 urte egin ditu aurten, eta eraberritze prozesua egin duzue. Zergatik? Zer aldaketa egin dituzue?

[I.G.]: Pandemia aurretik eta bitartean “Astindu” barne pro-

zesua egin zen, garai hartan Euskal Herrian Euskaraz eragile bezala oso ahul zegoelako. Gainera, ikusten zen gizartearen hainbat aldaketa eman zirela, eta horretara egokitzeak beharra zegoela. Hortik, hiru aldaketa nagusi egin ziren: lehenik eta behin, EHEk eragile independentista bezala aurkeztu zuen bere burua lehenengoz; bigarrenik, egitura malguago bat, ikusi zelako militantzia ereduak aldatu egin zela; azkenik, etorkizuneko zeregin berriak jarri ziren.

[S.E.]: Bai, funtzio hauek finkatu ziren: euskaltzaleak antolatzea espazio euskaldunak irabazteko; kontzientziak as-tintzea eta politizazio horretan sakontzea; beste borroketan loturak bilatu eta aliantzak sortzea... eta gazte belaunaldiak euskararen borroka batzea, ahaztu gabe helduek ere badaukatela funtzio bat. Eta uste dut horren emaitza dela gu hemen egotea eta EHera sartu den jende berriaren parte handi bat gaztea izatea.

